

SAMURAI MAITEA

I-n, 2018ko apirilaren 21ean

Samurai maitea,

(H)ari al zara, (h)ari al zara hemen dantzatu ezin izan zenituen pausuei koreografia berriak zirriborratzen? Egunsentiro erregutzen diet ostertzean pausatzen diren (h)antxetei eraman dezatela itsasoa zure barreraino eta itzul diezazkizutela gure denborapasak jeinuok baino uler ez dezakezuen hizkuntzan.

Hemen ohi baino hilabete gehiago behar izan dute egutegiek udaberritzen. Begiek eta (h)egiek luzaroan egin diete negar irakurgai utzi zenizkigun eten puntuei, eta urak bere onetik aterata datoz aspaldian. Potrokoloetatik harago, (h)ezkuntzak ukazioaren buru-keinura mugatuta jarraitzen du, zainketa berezien unitatean osasungintzak. Gutxi dira gurutzeei zure ausardiarekin aurpegia emateko adinako adorea biltzen dutenak. Ez maitea, ez, bideak ez du biderik egiten, ez behintzat zuk eta biok nahi genukeen abiadan.

Ez pentsa baina negar guztiak direnik aiene eta zinkurin, malkoek ere badakite gozo izaten iturburu zu zaituztenean. Dakizunez, Elaxarrek, zuen aitak, asteon bete ditu urteak, eta bai, ohi bezala aho ufada batez itzali beharrean, aurten Iradiren begietatik bildutako txinpartarekin piztu, eta zure izena jarri die urtebetetze tartaren gaineko berrogeita hamalau kandlei. Argi zuen, eta argi zaitu. Portzierto, ba al dakizu osteguna ezkerre bihotzean ez ezik, lepotik zintzilik ere bazaramatzala? Bai, bihotza, txikitan bezala. Iradik eta amatxok egin zioten opari, eta guztiek egin zuten negar elkarren begietan. Negar, aiene eta zinkuririk gabe.

*Aitak zergatik ari zara negarrez? galdetzean, zu ere ari zarela*ko erantzun zion etxeko txikiak. Ez al da ederra, maitea? Baina Elaxar eta Iradi ez dira barruan ez ezik kanpoan ere bazaramatzaten bakarrak. Amak azaleratu egin zaitu, bai Ekai, azaleratu, tatuaje ezin zoragarriago batean, azaleratu. Ikusiko bazenu...

LAINO

Ikusi. Bitxia da. Ez zaude, baina bazara, eta zu ere are ikusgarriago egin zaitu heriotzak, ikusgarria beti izan baitzara ezagutzen zaitugunontzat. Baina orain nor zara begiratu arren ikusten ez zintuztenentzat ere. Bitxia da. (H)abiatu ezean, ezin iritsi. Nola ba? Halaxe gabiltza, heriotza behar begiak zabalduko baditugu. Berandu eta ez zuk eta biok nahi genukeen abiadan, baina (h)ari gara, (h)ari gara begiradak transformatzen. Eta ez da gutxi, mina ez baitago erreparatzerik zauriei erreparatu gabe.

(H)ari gara, (h)ari, jostorrazaren behatxulotik ostadarrari koloreak ateratzen. Mahaitasunez oroitzen zaituzte Uharteko guraso, irakasle eta ikasleek; maitasunez Aiztondoko XI. Gutun Lehiaketako partehartzaileek. (H)ari gara, (h)ari, gure Samurari txikiari.

Eraso LGTBifobikoa izan omen da Sanduzelaiko jaietan, eta banoa maite, banoa zure borrokari ahotsa jartzera. Gaur (h)antxetei ez, gaur itsasoari erregutuko diot zure barrea gure barraraino ekartzeko. Hogeita lau ordu barru itzuliko naiz jeinuok baino uler ez dezakezuen hizkuntzan. Bitartean hartu h-den, eta h-gin:)

Zure (h)itz

LAINO